**ERREPORTAJEA BURDINA ESKUZ LANTZEN DUTEN ELGOIBARTARRAK · GEHIGARRIA KILIBARREN · BERBETAN JESUS MARI MAKAZAGA, BADIHARDUGU ELKARTEKO PARTAIDEA**

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko azaroaren 30a/IX. urtea/385. zkia



# Antzinako erara burdina lantzen

"BURDINA BERO DENO JO BEHAR" (esaera zaharra)

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
**943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
**943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
**943 74 34 90**

SORALUZIE
Leihoak-Armairu enpotra-tuak
Santa Ana, 8
**943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
**943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
**943 74 03 96**

## ISOLA

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
943 74 **30 94**

## GARRAIOAK

**ASENSIO ARTETXE**
Azpilgoeta, 16 MENDARO
**943 75 50 83**
**943 70 65 57**

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
**943 74 17 61**
**689 04 92 06**

**ONGI**
Urasandi, 8
**943 74 10 82**

**PAGOAGA**
San Antotin, 13
**943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
**943 75 50 62**
**607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
**943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
**943 74 07 89**
**608 14 30 40**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
**943 74 04 40**
**607 74 04 40**

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
**943 74 15 52**
**606 43 11 19-20**

## PROIEKTUGILEAK

**JESUS Mª GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
**670 41 20 73**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
MorKaiKO, 1
**943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
**943 74 12 38**

**BETI ARGI**
Errosario, 6
**943 74 16 44**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
**943 74 09 02**
**659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
**943 74 13 76**

## [illegible]

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
**943 74 34 18**

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
**629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
**943 74 29 87**
**679 19 77 47**

## ENTERIA

**IRANE 2000**
Olaso, 17
**943 74 30 95**



## Klonazioa

1997. urtean komunikabide guztietan hitz egin zen klonazioari buruz, Dolly ardia zela-eta. Batzuek hau ikerkuntza zientifikoetan aurrerapausu oso garrantzitsua zela adierazi zuten, beste batzuek ordea, pausu honek kate geldiezin bat askatuko zuela zioten, non azkenean, gizakia bera izango zen klonatua.

Lau urte pasa dira eta astelehenean "Advanced Cell Technology" (ACT) enpresa estatubatuarrak, Iehen aldiz bioteknologiaren arloan, giza enbrioi bat klonatu zuen. Beraiek ziurtatu dutenez, ez dute gizakirik klonatu nahi, egin nahi duten gauza bakarra "zelula-amak" Iortzea da, horrela gaisotasun anitz sendatzeko.

Oraingo honetan ere zientifiko batzuk ikerketa honen alde agertu dira. Norbaitek organu berriren bat behar baldin badu, bere azaletik zelulak lortu eta hauek klonatu besterik ez baita egin behar. Organu hartzailearen gorputzak organu berria ez onartzearen beldurra desegitean datza ikerkuntza honen helburua.

Cn rn O O • N •

Baina badaude honen aurka agertzen diren beste zientifiko batzuk ere. Hauentzat, moralaren aurka baitago pertsona bat egitea bere zelulak lortzeko. Gainera hurrengo pausua gizaki bat klonatzea izango dela diote.

Zaila da klonazioa ona den ala ez esatea. Baditu bere gauza onak eta bere gauza txarrak, gakoa erabiltzeko moduan dago.

Beraz, azkenean klonazioari buruzko legeren bat aurrera ateratzen bada, gizartearentzat onuragarria izatea eskatzen dugu.

Mireia Garrido



## Ama baten iritzi bat, besterik ez

BARREN-en badao kexak azaltzeko gune bat, hau ez dena. Beraz, iritzi bat bezala azaldu nahi dot ondorengua, hobeto esanda, iritzi batzuren ondorio pertsonal bezala, zeren eta aspaldixan ama-amama-umezain bat baño gehixaon komentarixuak entzunda, burura sarritxan etortzen jata.

Kontua da joan dan asteko alian irakurri nabala Plaza Txikixan dagoen parketxoari buruzko kexa. Batez ere honen garbitasun ezari buruz ziharduen. Ziur naiz Elgoibarren gauza asko egiten ari diala guztion bizitza kalitate maila hobetzeko. Plan horretan, planik badago, ez dakit umeentzako jolastoki-parkeak kontutan dauden ala ez. Haurrak etxean ditudanetik ez jata tokatu aldaketa nabarmenik ikusterik, eta horregatik hau esatera ausartzen naiz.

Konparaketak ez jakoz inori gustatzen baina ezin ditxugu ebitau eta nere alabak ere eitxen ditxu kanpora juaten geranian: "arna, hona etorriko al gara berriz?". Nora? Ba parke berri mordo bat dakazen herri haretara edo honetara, noski. Elgolbarko erdigunean bi dakaguz eta nahiz eta hobekuntzak izan ditxusten, batez ere Madalakuak, nahiko motz gelditzen diala esango nuke Elgoibarren dakaguzen ume guztientzako. Bestalde, Plaza Txikikuak kriston aize "korrientia" eukitzen dau. Probaizu han geldikan egoten eta "txurro" bat moduan geratuko zera. Eta Leku Eder onduan eukitxa, zergatxik ez eman lehentasuna haurrei eta hantxe parketxoa egokitu? Kontuz hango berdeguneetan ez sartu! "Ez zapaldu" txartel beharrik ez dago, animali batzuren "komuna" denetik ez dago horren arazorik. Ah! Udaletxe osteko parkia oso politxa da, baina nere ustez "dekoratibua" izateaz gain, jolasteko zertxobait eukiko balu, umiak ere hobeto ibiliko liake.

Edurne Bilbao

Kexak ........................................ 5

InOtZ lOtZ ........................................ 10

gehigarria ........................................ 13

kiROI.Ak ........................................ 20

aGencla ........................................

## Oharra

Datorren astean, Konstituzioko zubia dela-eta, ez dugu alerik kaleratuko. Beraz, BARRENen idatziren bat edo oharren bat argitaratzea nahi baduzue, kontutan hartu hurrengo alea abenduaren 14an argitaratuko dugula.

# Urruzunoren begi ezkutua



Etxeko atearen behatxulotik begira pasatzen zuen ia egun osoa. Asko atsegin zuen eskaileretatik jaisten ziren bizilagunen mugimendu guztiak kontrolatzea, ez zegoen bizilagunik haren kontrolpetik ihes egingo zuenik. Eztul eta bakarrizketak, zapata eta takoi hotsak, perfume eta tabako usaiak... guzti-guztiak zituen buruan memorizaturik.

Behin, 24 tomodun entziklopedia astun bat saldu nahi zion tipo bat etorri zitzaion atera. Traje eder bat eta kolonia usaintsua zeraman. Tinbrea jotzen zuen bitartean hari so gelditu zitzaion, ezkutuko hurbiltasunak ematen zion plazerraz gozatuz. Baina entziklopedia saltzaileak ez zuen etsi eta tinbrea jo eta jo jarraitu zuen. Horren temati azaldu zen, ezen etsiturik atea ireki ziola azkenean.

Orain, entziklopedia irakurtzen pasatzen du egun osoa. Seigarren tomoa ari da irakurtzen baina lehenengo bi tomoak zortzi aldiz irakurri ditu, hirugarren eta laugarrena, bost aldiz, eta bosgarrena, hiru aldiz. Irakurtzen doan heinean, aurreko tomoetan memorizatu duena ahazten baitzaio.

Iñigo **Otailo**

ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
w 943 74 41 12
Publizitatea:
x" 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGRARATZALE0
Elgo■barko Izarra

LAcurorzaritA Elgorbarto Udala **ZUZENDARIA** Eli Aizpuru **KAZETARIAK** Irat Ag irreazaldeg. Aser Orbea **PUBLIDTATEA** Andortz Agirregomezkorta 11411KEtATZA/LEA Bea Ansela ALVEINISTRAZIOAAnnia Rodrigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen **KOCADORATZAILEAK** Aintroa Lodoso, Neslor Fuentes, Perlo Menchzebal, Juan M. EluStendo, Alberfo Ansualegi. Edume Bilbao, Getzeo Arrieta. Jon Peli Unguen_ Lorea Perez de Albenrz, Joldn Martinez, Otga Ltnzilla, Montse Arregi, Juando Gorostiza, Jon Gurrutcaga, Jon Eurgi.AinhoaAndonegi, Kokoe K E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Barateren Inermarazola Geau Koop. E. **TIRADA 4.025** ale Lece **OORDAILUA** SS-1.03$92 ESSN 1139-1059

ELG011AIKO IZAUA

*Elgoibarko Udalak. Euska Jaurlarkzako Kukura Sailak eta Fora Aldundiak diruz lagundutaka altlizkaria.*

kutxa

4>DANOBAT £4 GO I TI
WHALPHAS NZPRAMIENTA
GRUPO DANONAT

§STARTA

ARAMBURU
BITX1DENDA
San Frantzisko, 26
Tel. 943 742 535

AMBURUBIIIXIDIENDA

Gabonetako opariak aukeratzerakoan, gogoan izan, aurten ere URREZKO BI ERLOJU zozketatuko ditugula bezeroen artean.

**2.000 pta.ko EROSKETARENGATIK**
ZEMBAKI **BAT EMANGO DUGU**

## 1111111t




11111 O Emakume batek deitu digu P.M. Urruzuno kaleko kontenedoreak, "Udaberri" tabernaren kanpoan daudenak, gainezka egon ohi direia salatzera. "Garbitu dituzte baina kontenedore gutxiegi daude inguruko tabernetako zahornk jasotzeko, larunbatetan, hatik bat. Kontuan hartu hehar da, baita ere, tabemetaz gain, bizilagun ugarik ateratzen dugula zaborra. Jaso bezain pronto betetzen dira. Bestalde, kontenedoreen atea altxatzeko barra apurtuta dago eta askok kanpoan lagatzen dituzte zakarrak".

O Parrokiako eskailerak oso labainak daudela-eta, jubilatu bat etorri zaigu BARRENera, "Duela gutxi pertsona bat erori zen bertan, eskailerak oso labainak eta asko gastatuta daude eta oso erraza da erortzea. Agian heldulekuren bat-edo ipini beharko litzateke", esan digu gizon honek.



## TXALOAK



Neska gazte batek, Yudego farmazia gaineko 18 zenbakia duen etxebizitzaren fatxada margotzeko ardura hartu dutenak txalotu nahi ditu. "Benetan polita gelditu da fatxada. Horrelako gauzak, itxura ona ematen diote herriari eta gehiago zaindu beharko genituzke", esan digu.

## Barrak, Birrak eta Barreak






151( R SIRR-1".01■ "'k I/ T1 P4 IRICIA (1U4DOk `7RA\F t.)600 HERRLRIA
sic iRRI 11P. 1.+ RI-1'. 1611 1)117 ! I BLIR1)1\.-1 I'012111 tit G4UR
rG(!' 1T'. 11 k/77-1 \ FR Bit T7.1\1)1R1 ruts\ 7 -5 11.1k1\ ,k 10
i9L-k"..( )1/ ;". ) SLIrFGrI 1/.1 FI r•cUr)i -lRF`:7L9T
kc )1\ ) 8.1 .kli I RR! .1'. 1\1 'If .19i -1' ICIOs GURF ARB-5'
50! BLIRDI\·| 1OgiJi /!1■() IRAB11 /111_1/ II I k'..11'1 I 'IR1 81111
-II /ike)//.1', ARRA/0/41' [(K,L!

Duela 6 hilabete jarri zuten martxan "Irane 2000" enpresa 3 bazkidek (Asier Serrano, Patricia Criado eta "Mendi") Olaso industrialdean. Bertan, gaur egungo errementerietan erabiltzen diren makina eta tresneriarekin hasi ziren burdina forjatzen. "Enpresentzako armairu bereziak, armazoiak, ospitaletarako ohe bereziak, balkoiak, teilatuetarako estrukturak... egiten ditugu, bezeroek eskatzen digun edozer, alegia" aipatu digu Asier Serranok.

**"Suarekin, mailuarekin eta eskuen indarraz, makinek egiten dituzten gauzak egiteak harrotasuna ematen du"**
Asier Serrano

Duela 2 hilabete, berriz, burdina antzinako eran lantzen hasi ziren. "Mendi"-k ikastaro bat egin zuen Manu Teresa eibartarrarekin. Manu soldadura irakaslea izateaz gain, Alemanian izana da burdina era tradizionalean lantzen ikasten eta errementari maisu titulua eskuratu zuen, "Manurekin 2 hilabete egin nituen ofizioa ikasten, feriaz feria, eta tailerrean lanean", aipatu digu "Mendi"-k. Manurekin ikasitakoak praktikan jartzea erabaki zuen,



## ZERGAIE ITZIAI 1RAGANEKO TEKLIKETARA

Burdina antzinako eran lantzen zergatik hasi ziren, jende askok egin dien galdera dela aitortu digute. "Gaur egungo erremintari tailer bati burdina antzinako eran lantzeko moduak batuz, tailerrari beste kategoria bat ematen geniola pentsatu genuen". Gainera, produktu hauekiko eskaera zegoela ikusi zuten, "Jendeak gogoko ditu eskuz egindako lanak eta badaki apreziatzen". Azken emaitzan igartzen dela gauza bat eskuz edo makinaz egina izan den azaldu digute, "makinekin azkarrago lan egiteaz gain, pieza ia perfektuak lortzen dira. Eskuz eginak, berriz, egiazkoagoak dira. Kolpez kolpe sortutako artelanak dira. Tamalez, gaur egun tresna asko eskuz eginak izango balira moduan saltzen dira, hala ez izan arren". Asier eta "Mendi" ahalik eta modernitate gutxien erabiltzen saiatzen dira. Antzinako errementegietan lan egiten zen modu berean lan egin nahi dute. Burdina mozteko zerra erabili beharrean, adibidez, mailuak bakarrik erabiltzen dituzte.



## EGITEN OUTINAZ HARRO

Bestalde, burdina antzinako eran lantzeak poztasun eta harrotasun handia ematen diela esan digute, "Suarekin, mailuarekin eta eskuen indarraz, gaur egungo makinek egiten dituzten gauzak egiteko gai garela ikusteak harro sentiarazten gaitu".

Hasieran trukoa hartzea kosta zitzaiela aipatu digu Asierrek, "13 urte nituenetik egiten dut lan



# lantzeko era tradizionala

## 3ERRESKURATU \A IIAN



burdinarekin. Soldaduzkan ere soldatzea tokatu zitzaidan, baina eskuak mailua erabiltzera ohitu gabe nituen. Dena den, pazientziaz eta imajinazioaz, gauza oso politak egitera ailegatu gaitezkeela ikusi dugu".

### ZER EGITEA1 DUTE?

Egiten dituzten tresnekin katalogo bat atera dute, "kandelabroak, lorontziak, lanparak eta ezpatak egiten ditugu. Loradendak eta artisautza dendak dira gure bezerorik onenak oraingoz, baina baita baserri zaharrak erosi dituen jende gaztea ere. Eskulanean ordu asko joaten dira eta errentagarritasuna baxua da. Tailerrean ordubete nahikoa da kandelabro bat egiteko, sutegiarekin, berriz, 4-5 ordu behar dira. Beraz, hasieran dirua gaitzen dugu".

### PROISCIU BthEDAII

Mailuari eta ingudeari neurria hartu ahala, gauza konplikatuagoak egiten hasi dira: "Jadanik egin ditugu produktu konplikatuagoen diseinuak, armiarma itxurako bonbila bat, arrosa itxurako irudi bat... **Bestalde,** baserrietako ganbaretan ahaztuta, izugarrizko artelanak daude. Diseinuak kopiatu eta, askok, berriz egitea merezi dutela uste dut". Asierrek proiektu handiago bat ere badu buruan, "Bertako errementari batek gonbidatuta, Mexikon izan nintzen hilabete batez. Eskultura baten planoak laga zizkidan eta nire asmoa burdinezko 3 metrotako izurde bat eta bere kumearen eskultura egitea da. Epe luzerako proiektua da. Daukadan denbora libre apurra aprobetxatuz egitekoa. Saldu beharrean, donatzea da nire asmoa".

### TRESNERIA ETA PROUSUA

Sutegia, ingudea eta mailua dira errementaritza tradizionalean behar diren tresna bakarrak. Burdin zatiak sutegian berotu, goritutako burdina ingudearen gainean jarri eta mailuarekin nahi den itxura ematea bezain sinplea da prozesua. Mailukadak zehatzak eta bizkorrak izan behar dira, burdina oso denbora laburrean mantentzen baita goriturik. Iranekoek erabiltzen duten sutegiak auspo elektrikoa du lana bizkortzeko, baina osterantzean, lehengoen sistema berdina erabiltzen du. Beroa jasaten duten adreiluekin egina dago sutegia eta erabiltzen den ikatza ere berezia da, "ez da ikatz begetala, minerala baizik. Polikiago erretzen da eta berotasun gehiago ematen du. 200-300 gradu, gutxi gorabehera. Dena den, begiz antzematen dugu burdina noiz dagoen prest, gerezi gorri kolorea hartzen duenean, alegia. Gehiegi berotuz gero, alferrik galdu leike. Hori dela eta oso garrantzitsua da sua kontrolatuta izatea." Aurrerago, erakustaldiak egiteko-eta, sutegi erabat tradizionalak eraikitzeko asmoa dutela azaldu digute.

> "Eskuz egindako piezak kolpez kolpe sortutako artelanak dira. Asko eskuz eginak balira moduan saldu arren, ez da herrela izaten" Mendi



*Burdina aintzinako eran forjatzea lan gogorra da eta esku askoren indarra behar da. Argazkian , ezkerretik hasita, Matilde, Pepi, "Mendi" eta Asier.*

2001-XI-30

Emakumeen Aurkako Indarkerlarekin Amaitzeko Nazioarteko Eguna izan zen domekan

# TRATU TXARREN ARTETIK, ZEIN BEGITANTZEN ZAIRI GOGORRENV



## M. IDALINA ALVES

**43 urte, etxekoandrea**

Denak, emakumeok ez gaude tratu txarrak jasateko prest. Jipoiak daude batetik, baina badira jipoiak baino min gehiago egin dezaketen hitzak ere.

## M. TERESA USABIAGA

**79 urte, etxekoandrea**

Jotzia gogorra da oso. Andra-gizonek berba in bihar dabe horretara ailegau baino lehen. Ni, lantzian behin, gizonakin hasarratzen naiz, baina hortik jotzera...





## M. JESUS ARCE

**42 urte, etxekoandrea**

Psikologikoak. Fisikoa egun batzutan joaten da, baina psikologikoa barruan gera daiteke. Bikoteari ez nioke ni iraintzea onartuko, eta are gutxiago, jotzea.

## JULIA VINAGRE

**53 urte, etxekoandrea**

Tratu txar guztiak dira gogorrak. Ni ezkondu nintzela **24** urte dira eta inoiz ez dut arazorik izan. Gizonari ez nioke onartuko gaizki tratatzea, ez psikologikoki, eta ez fisikoki .





## MONICA DEL RIO

**26 urte, dendaria**

Psikologikoa gogorragoa dela uste dut, barruan gelditzen da eta buruari eragiteko motiboa izan daiteke. Niri bikoteak eskua alixatuko balit, harremana utziko nuke.

## AINARA URANGA

**31 urte,**
**administrari laguntzailea**

Eramangaitzena fisikua dala pentsatzen dot. Psikologikuakin norbera konturatzia zailaua izan leike, baina konturatzen dan momentutik, bixak dia gogorrak.



---



***ESKERTZA***

*2001eko azaroaren 24an, 89 urte zituela hil zen MARIA BASTARRIKA LARRAÑAGAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Gloria Santiago. Haizea emakume taldekoa

# "indarkeria kasuren bat ezagutuz gero, familiakoa edo laguna ez izan arren, salatu egin beharko genuke"

*Azaroaren 25ean, Emakunzeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna izan zen. Azken egunotan ahoz aho dabilen gaia da. Arazoa, ordea, ez da berria, aspalditik dator. Domekan, tratu txarrak jasandako emakumeei elkartasuna adierazteko ekitaldiak egin ziren Elgoibarren. Emakumea izanik, indarkeria jasaten dutenengandik hurbil sentitzen delako eta arazo honen aurrean kontzientziazio lana garrantzitsua delako hartu zuen parte ekitaldian Gloria Santiagok.*



**Ekitaldiren bat antolatu al zenuten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Egunean?**
Ekitaldiak mundu osoan egin ziren eta Elgoibarren ere bai, noski. Herritarrei lazo txuriak banatu genizkien arazo honi aurre egin behar zaiola kontzientziatzeko. Lazoak emakumeei eta gizonezkoei ipini genizkien, bereizketarik egin gabe.

**"Nazioarteko Egunak antolatzeak jendearengana hurbiltzeko balio du, eta arazoa jasaten dutenei, laguntieko prest jende asko dagoela azaltzeko"**

**Zer egin daiteke emakumeekiko indarkeria desagertzeko?**
Salatu egin behar genuke. Era berean, erakunde erakundeei ere laguntza eskatu behar zaie. Emakumeei segurtasuna eskaini behar diete: informazioa eman, lagundu...

**Nazioarteko Egunak egiteak, zerbait konpontzen al du?**
Bai, horrelako ekintzek jendearengana hurbiltzen laguntzen dute eta herritarrok, salatzen dugun arazoa, gauza arrarotzat ez hartzea posible egiten du. Gizartea mentalizatzeko balio dute eta benetan arazoa jasaten dutenei laguntza eskaintzeko prest jende asko dagoela adierazteko balio dute.

**Elgoibarren tratu txarrak jasandako emakumerik ba al dago?**
Bai, leku guztietan bezala, Elgoibar ez da arazotik kanpo gelditzen.

**Nora jo dezake Elgoibarren, tratu txarrak jasaten ari den emakume batek?**
Lehen pausoa, Udaleko Ongizate Sailera jotzea da. Bertan laguntza eskaintzeko prestatuta daude.

**Guztiok al gara erasotzaile posibleak?**
Bai. Dararnagun bizimodua oso estresantea da, horrek desorekatu egiten gaitu eta edozeinek, oreka galduz gero, horrelakoak egitera jo dezake. Desorekatutako pertsonak izan ohi dira erasotzaileak eta guztiok daukagu arrisku hori. Etxean soltatzen dira, normalean, kaleko tentsio guztiak. Hori dela eta, indarkeria kasurik gogorrenak etxe barruan gertatzen dira.

**"Elgoibarren ere indarkeria kasuak ematen dira. Eman heharreko lehen pausoa Udaleko Ongizate Sailera joatea da"**

**Zein da pertsona batek jasan dezakeen tratu txarrik okerrena?**
Psikologikoa, bizitza guztirako markatuko dituelako. Hath, ere, dena batera doa, batak bestea ekartzen du.

**Zer egingo zenioke indarkeria erabiltzen duen bati?**
Tratamenduan jartzeko esango nioke. Nire ustez desorekatutako jendea da.

**Gure inguruan, tratu txarrak ikusiz gero, salatu egin beharko al genituzke?**
Bai, dudarik gabe. Guztiok hartu beharko genukeen konpromisoetako bat da eta guztion artean, pertsona honi laguntzea posible izango litzateke. Hala ere, horrelako kasuren bat salatuko banu, konfidentzialtasuna gordetzea eskatuko nuke.

2001-XI-3 0

# Alkateak eta Oruesagasti zinegotzilv, Udalean duten jarrera salatu dute BatasunaL.

## Batzorde informatiboetan eta pfenoan herritarrei hitza ukatzen zaiela esan zuten

Batasuna alderdiko zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten joan den astean, Kimetz elkartean, Gillermo Garate alkateak eta J.M. Oruesagasti zinegotziak Udalean duten jarrera salatzeko. Beraien esanetan, EAJ-PNV eta EA alderdiekin akordioa sinatu zutenean, herriaren zerbitzura zegoen udal demokratikoa sortu nahi zuten, baina gerora ez omen da horrela izan.



*Bittori Guenaga, lzaskun Arozena eta Asier Zengotita, Batasunako zinegotziek eman zuten prentsaurrekoa.*

Batetik, batzorde informatiboen kasua aipatu zuten: Herritarrei batzordeetan parte hartzeko aukera eman behar litzaieke, bestela guk jasotzen dugun informazioa Udalak emandakoa baino ez da. Zenbait komisiotan gai garrantzitsuei buruzko informazioa Garatek eta Oruesagastik lantzen dute eta guri transparentziarik gabe iristen zaigu".

**Plenoak**

Bestetik, plenoetan gertatu ohi dena salatu zuten Batasunakoek: "Informazioa plenoa baino bi egun lehenago ematen digute. Beraz, ez daukagu gaiak lantzeko astirik. Gainera, Alkateak erabakitzen du ez ohiko plenoetan zein gai sartu eta zein kendu. Herritarrei inoiz ez zaie plenoetan hitz egiten uzten, horretarako ematen duten arrazoia batzordeetan hitz egin dezaketela da, baina hauetara joateko baimena ere ez zaie beti ematen".

Adibide moduan, hainbat kasu aurkeztu zituzten. Nabarmenena eskailera mekanikoei buruzkoa da: "Eskailera mekanikoak egiteko lanak urtea amaitu baino lehen hasi nahi dituzte, baina aurrekontuetan ez dago horretarako diru kopururik zehaztuta. Beraz, 50 milioi honetarako bideratu nahi dituzte beste sail batzuetako aurrekontuetatik. Aurrekontu osoaren 9,5 baino gutxiago denez, Alkateak bere kabuz erabaki dezake diru partida onartzea. Gure ustez, Alkateak bere legegintzaldia amaitu baino lehen egin nahi ditu eska,ilerak".

Batasunakoek adierazi zutenez, gai hauen aurrean "EAJ-PNVko gainontzeko zinegotziek beste jarrera bat dutela uste dugu".

# Abenduaren letik aurrera baserriko esne litroa 100 pezetan eskainiko dute saltzaileek



Heniko esne saltzaileek ados jarrita, abenduaren letik aurrera esne litroa 100 pezetan saltzeko erabakia hartu dute. Beraz, hemendik aurrera etxez etxe esnea banatzen dutenean ohiko erosleek gutxiago ordaindu beharko dute esnea.

# Kilimanjarora joandako 10 emakume elgoibartarrek Emakunde Saria jaso dute

Joan den uztailean eman genizuen Elgoibarko 10 emakumek 5.895 metroko Kilimanjaro mendia igo zuten berria. Lorpen hori dela eta Emandu saria jasoko du emakume talde honek. Epaimahaikoen iritziz, emakume talde elgoibartar hau saritu nahi izan dute, "emakumeek kirola garatzeko gertuko eremuan egindako lanarengatik, eta bereziki, kirola praktikatzeari uzten zaion adin tarte batean egindako lanarengatik; etengabeko jardun horren ondorioz, Kilimanjaroko tontorreraino iritsi zirelako". Emakume talde honek oroigarria eta 750.000 pezetako dirusaria jasoko du azken hau Getxoko nesken errugbi taldearekin erdibana.






## Abenduaren 1etik 5era bitartean egongo da zabalik Misio Taldearen elkartasun denda

Parrokiako Misio taldeak aurten ere gobernuz kanpoko "Mereadeco" eta "Coprodeli" erakundeekin lankidetzan, elkartasun denda irekiko du. Abenduaren 1 ean zabaldu eta urtarrilaren 5era bitartean izango da irekita Odria familiak errosario 12an utzitako lokalean. Lanegunetan, goizez, I 0:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeetan, 17:30etik 20:00etara egongo da zabalik, eta larunbat goizetan, berriz, 10:30etik 13:00etara. Dendan kakaoa, kafea eta artisau Ianak salduko dituzte, besteak beste. Horrela, Hirugarren Munduko produktoreei bidezko prezioak ordainduko zaizkie, baita lurralde horietan beharrezko proiektuak finantziatu ere.

## 185 lagun elkartu ziren Mikel Alberdiren omenaldian



Joan den azaroaren 14an kaleratu zuten Mikel Alberdi presoa, eta larunbatean, hilaren 24an, omenaldia egin zioten Plazan. Txalaparta soinuz hasi zen ekitaldia eta tabladuan gainontzeko preso elgoibartarren senideekin bat egin ostean, lore sorta bana jaso zuten. Ondoren, bertsolariak aritu ziren eta Mikelek hainbat esker hitz egin ostean, Mari Juli Arregik eta Edurne Lasak kantu eta poesia emanalditxoa egin zuten. Omenaldia amaituta, Baltzola anaien trikiti doinuekin herriko kaleetan kalejira egin zuten eta Mikelek hainbat tabernatatik bere argazkia kendu zuen. Ondoren Ikastolako frontoian 185 lagun bildu ziren bazkaltzera.



## Beasainen tiroz hildako ertzainen aurkako atentatua salatzeko kontzentrazioak egin ziren larunbatean Plaza Handian

Joan den larunbatean, eguerdiko 12:00etan eta iluntzeko 20:00etan kontzentrazioak egin ziren Plaza Handian, Ana Isabel Arostegi eta Javier Mijangos ertzainen hilketarengatik protestatzeko. Bi ertzainok Beasainen tiroz hil zituzten trafikoa zuzentzen ari zirela. Larunbata izanik, ohiko kontzentrazioetan baino jende gehiago elkartu zen eta 15 minutuz isilean egon ostean, txaloka amaitu zuten Ibarretxe lehendakariak deitutako kale agerraldia.

## Euskaraz hitz egiteko aukera izango dute 25 euskara ikaslek Arigerak antolatutako Berba-laguna egitasmoari esker

25 euskara ikaslek eta 18 euskaldun zaharrek talde txikietan banatuta euskaraz jarduteko ahalegina egingo dute hurrengo hilabeteetan. Kafea hartzen zein San Lorentzora bidean ordubeteko saioak egingo dituzte Berba-laguna izeneko egitasmoaren barruan. Izenak berak argi adierazten duen bezala, euskara ikasleek euskaldun zaharrak izango dituzte lagun hizketarako. Arigera proiektuak martxan jarritako ekintza bat da hau eta aurrerantzean beste egitasmo batzuk aurrera eramateko asmoa dute.



2001-XI-30



*Tokian tokiko berbetak bere lekua hartzen ari dira euskara batua finkatuta dagoen honetan. Gure bailaran zenbait euskaltzale bildu eta urtebetez lanean dihardute gai honen inguruan, Badihardugu elkartearen beitan. lazko azaroan egin zuten lehen bilera Eibarren, eta urtebeteren ostean, Jesus Mari Makazaga taidekide elgoibartarrari Badiharduguren berri emateko eskatu diogu.*

# "Adiñeko ienciak cara oillen euskeratik ikasi bihar cogu

M. MAKAZAGA

- **Zer da Badihardugu?**

Deba baillarako euskaltzalien elkartia da, oraiñ urtebete sortua, herrixetako hizkerak ikertzen, erabiltzen eta zabaltzen lagundu nahi dabana. Ehundik gora Iagunek eman dabe babesa, baifia batzarretan jardun dogunak, 50 bat izango gara. Lehenengo urte honetan baillarako herrixetako hizkeren ezaugarrixak aztertu dittugu ixa hamabosteroko batzarretan: zerk batzen eta zerk bereizten gaittuen.

- **Laster Iiburu bat kaleratzekotan zaudete?**

Aurtengo lanaren ondorena da; Badihardugu eIkartiaren helburnak eta filosofixia jasotzen dira, herrixetako hizkeretako ezaugarrixak eta euskalkixan idatzi nahi dogunerako gure idazkera proposamenak.

- **Zein da Badiharduguren hurrengo apustua?**

Batetik, hizkuntzia bera jasotzia (falta dan herrixetan ikerketa hori egittia edo bultzatzia) eta bestetik, herrixetako hizkerak zabaltzia, ikastetxe-euskaltegixetara, administraziora eta lagunartera.

- **Elgoibartarrok ba al dugu bertako berbetarenganako interesik?**

Interesa badakagu, gertatzen dana da aurreiritzi asko eduki dittugula (besteren hizkeria da hobia, euskara batua da bu[tzatu biharreko bakarra, ...), eta horrek eraman gaittu esparru askotan ez erabiltzera eta, gazte jendiaren artian batez ere, bertako ezaugarri asko ahaztera.

- **Zeinek erabiltzen du batez ere Elgoibarko berbeta?**

Erabili, danok erabiltzen dogu; oraiñ, garbixena adiñeko jendiak darabil eta baitta basarrixetakuak ere: erderiak eta, euskara batuaren bittartez, beste euskalkixak ez dabelako hainbeste kontaminatu.

- **Zein hitz edo esamolde duzu gogokoen gure herriko hizkeratik?**

Ez dakit, bairia inportantia dana da gufe berbetia estimatzia eta erabiltzia; askotan juaten gara euskera batuan dihardugunian beste euskalkixetako ezauganixetara, eta jakin bihar dogu gure hizkeretan oiñarrittutako euskera batua ere egin geinkela eta egin bihar gendukeela; bestiak beste, kalidade hobeko euskeria izango dalako.

- **Izan ere, Elgoibarko berbetaren azterketa egiten ari zara. Azaldu ikerketaren nondik norakoak.**

Bai, Elgoibarko izarraren eta Udalaren laguntziarekin, Elgoibarko hizkeraren ikerketia egitten dihardut: batetik gure hizkeraren ezaugarrixak jasotzen ari naiz, eta bestetik, alboko herrixetako hizkerekin alderatuaz, zertan garan berdin eta zertan desberdin erabakitzen.

- **Euskara batuarekin herrietako hizketa galdu egingo al da?**

Ez euskera batuarekin, baizik eta euskalkixen esparruak, euskera batuak bete ezin dittuanak, erderiak betetzen badittu. Eta zergaittik jotzen dogu hainbeste erderara? Beste arrazoi batzuen artian, ez dogulako ondo menderatzen esparru batzuetan erabilli biharreko euskeria: lagunartekua, jolaserakua. Eta zer egin hori konpontzeko? Adiñeko jendiak darabillen euskeratik ikasi, horrek dira eta altxorra garbixen mantendu dabenak.

# KiliBARRen

2001ko ozaroaren 300/1 unea/79. zk a

## Euskal ilizlkletako IV. etapa Mendaron bukatuko da

### Txomin Zulaika Alkateak eta Julian Eraso, Euskal Bizikletako presidenteak, sinatu zuten kontratua



Udalak eta Euskal Bizikletako arduradunek ekainaren 8ko etapa antolatzeko kontratua sinatu zuten joan zen astean. Euskal Bizikleta ekainaren 5etik 9ra izango da, eta 4. egunean Mendarora iritsiko da. Egun honetan, txirrindulariek saio bikoitza izango dute: goizean, tropela Aguraine-tik aterako da eta 97 km. egin ostean, Mendaron izango du helmuga. Arratsaldean, berriz, Mendaro-Mendaro erlojuz kontrakoa izango dute. Etapa honek 21 km. izango ditu, Mendaron hasi eta Kalbario gaina pasatuz, berriro ere Mendaron bukatuko da. Euskal Bizikleta 98. urtean iritsi zen lehenen aldiz Mendarora. Bi urte beranduago, berriro egin zuten topo, eta datorren urtean hirugarren aldiz elkartuko dira Mendaro eta Euskal Bizikleta. Julian Era.so, Euskal Bizikletako presidenteak, esan zuenez, "ingurune hau oso aproposa da erlojuz kontrakoa antolatzeko, eta Mendaroko herriak hala nahi badu behintzat, gu berriro ere etortzeko prest gaude" .

## Gazte Asanbladak antolatuta, III. Gaztainerre eguna ospatu zuten zapatuan



*Lurdes Rodriguez eta Nerea Larratiagak irabazi zuten babagorri lehiaketa*

Mendaroko Goñati frontoian, babagorri lehiaketa izan zen iragan larunbatean. Lau talde izan ziren parte hartzaileak, eta horietatik onenak Lurdes Rodriguez eta Nerea Larratiaga izan ziren. Bikote honek lortu zuen 15.000 pezetatako lehenengo saria, Amagoia Elkoro eta Olatz Urbietaren aurretik. Hirugarren sailkatuak, Alex Aranberri eta Borja Rodriguez izan ziren. Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, giro bikaina izan zen Goñati frontoian. Egitaraua goizean goiz hasi zen. Partaideak goizeko 10:00etan ekin zioten babagorriak prestatzeari, eta sari banaketa eguerdiko 14:00ak aldera izan zen. Ondoren, trikitilari eta bertsolarien doinu artean, bazkaria egin zuten. Arratsaldean trikipoteoa egin zuten, eta hortik aurrera gorputzak ahal zuen beste luzatu zen gaua.

KilisaRRen Kolaboratzallea: Ainhoa Andonegi.
Mendaroko Udalaren dirufaguntzarekin argitaratua

## Saioara Mendi irteera abenduaren 2an

In Leike Aisialdi Taldeak antolatuta, Saioara mendi irteera izango da datorren abenduaren 2an. Goizeko 9etan Mendaroko tren geltokitik aterako dira mendizaleak, eta iluntzean etxeratuko dira. Mendi ibilbidea 3-4 ordu ingurukoa izango da, eta ez dauka zailtasun handiegirik. Antolatzaileek urte sasoi honetarako arropa egokia eramatea gomendatzen dute, eta jatekoa norberak eraman beharko du. Irteera honen zenbatekoa 500 pezetatakoa izango da. Interesatuek Ormolan eman dezakete izena azaroaren 30a baino lehen.

## Gabonetako euskarazko ipuin lehiaketa

Udaleko Euskara Batzordeak Gabonetako euskarazko VII. ipuin lehiaketarako deialdia zabaldu du. Aurtengoan hiru kategoria desberdinetan banatuko da Iehiaketa: a) Mendaroko San Jose ikastolako O.H.O. 5 eta 6. mailako ikasleak b) Debabarreneko ikastetxeetako D.B.H. 1 eta 2. mailako ikasleak e) Debabarreneko Ertain ikastetxeetako ikasleak. Gaiak libreak izango dira, eta lanak Udaletxean aurkeztu beharko dira, abenduaren 15a baino lehen.

## Elgoibarren kontra jokatuko du Kilimonek

XI. jardunaldia jokatuko da datorren igandean, abenduaren 2an, eta Kilimonek Elgoibar izango du arerio. Mendarotarrak azkenak dira sailkapenean 2 punturekin, eta ez da norgehiagoka erraza izango. Pasa den astean ere, Arrasaten galdu egin zuten, eta oraingoan garaipena lortzea oso garrantzitsua da beraientzat. Ligako lehen itzulia amaitzear da dagoeneko, eta Kilimonek ez du oraindik partidua bat bera ere irabazi. Elgoibartarrak bederatzigarrenak dira 12 punturekin. Beraz, hauek ere 3 puntuak behar-beharrezkoak dituzte. Partidua zalla izango da, beraz, Kilimonek gogor saiatu beharko du.

# MENDARO INTERI

Teknologia berrien etengabeko garapena ikusirik, Udalak proiektu berri bat jarri du martxan. "Mendaro Interneten" izenez ezagutzen den proiektu honek 2 urte iraungo du, baina dagoeneko eman ditu bere lehen urratsak: alde teknologiko guztia finkntuta dago. Beraz, falta den gauza bakarra jendearengana iristea da. Proiektu honen helburu nagusia, Mendaroko biztanleak teknologia berrien mundura bideratzea da, eta bide batez, sarearen bitartez, Mendaro munduko herri guztietara hedatzea. Proiektu aurrerakoia da zalantzarik gabe. Aurreratuegia akaso Mendaro bezalako herri txiki batentzat, baina Udalak eskaini dioten aukera aprobetxatu egin du, berriro ere Mendaro handitzen ari dela egiaztatuz.

## "MEndaro IntErnEtEn" proiEktuarEn barnEan sortuko dirEn zErbitzuak:

Netacepe:

11 ra St Ftrt Vnt PZ Fgt

### 1. Udal Gestioa On-Line:

Herritarrei edozein gestio edo kontsulta internet bitartez egitea ahalbidetzen zaio. Norberak bere ordenagailutik, Udalari edozein galdera, zein eskakizun egin ahal izango dio, bertara joan gabe. Aurrerantzean eskaintza hau hobetzea espero da, eta dokumenturen bat behar izanez gero, eskaera ordenagailuz eginez, momentuan jaso ahal izango da etxean.

Dcw



Nelscape:

Wd rar. oamt R•klad I kown Print Ffid

lota.in

### 5. Telefonia analogiko zein digitala:

Euskaltelekin elkarlanean, telefonia digitala ezartzeko aukera dago. Teknika honi esker, udaletxe berria, lehengo udaletxea eta Musika Eskola konektatu ahal izango dira. Fibra optikoaren bitartez konektatu dira, hau da, hiru edifizioetako ordenagailu sarea bat egin da. Telefonoarekin gauza bera gertatzen da. Linea bakarra izango da hiru edifizioentzat, eta luzapen bat markatzea nahikoa izango da toki batetik bestera deitzeko. Honetarako telefono berezi batzuk jarri dira, eta dagoeneko martxan dago.

Netscape:

C»' Forward Mail R.losd wrsaor, Open er. Find ,p

Lecatioe.1

### 2. Telebista digitagal

Telebista lokala sortzeko proiektua da. MTB (Mendaro Telebista) izango da bere izena, eta Gabonetarako martxan jartzea espero da. Telebistako material guztia prest dago, baina oraindik zenbait gauza lotu gabe daude. Hala ere, Gabonetan besterik ez bada, Alkatearen hitz batzuk emititzea espero dute. Bestalde, zirkuito itxian kamara bat ezarriko da, eta Internet bitartez, Mendaron uneoro gertatzen ari dena ikusi ahal izango da.

.26311 C.ur-4n1 bam.

21411 jr srdi Rek.
imation

### 4.

I j.{-nI No!..-.«,

<;20 aaol or:> Fervrard
leaation.1

Tele
egitear
horreta
hartzer
komun
ikustel
ematen
ordena
pantail
meetin
bidez,
konekt
jendea
eta ber
daitekE

Decument Don

# OIANE VALENCIANO

## "MENDARO INTERNETEN" PROIEKTUKO ARDURADUNA

# "Herriari prestigioa emango dio proiektuak"

# 4ETEN

scep e.

## nternet:

**lendaroko herriaren web orrialdea izango da. Orain ere badago orrialde bat, baina estatikoa da. Proiektu honekin, web orrialde dinamikoa sortu nahi da, hau da, egunero eguneratuko dena. Orrialde hau izango da proiektuaren giltza. Hemendik, link batzueri esker beste zerbitzu utietara sartu ahal izango da.**

_ Netscape:

Rebad

## okonferentzia:

**ano deiak komunikazio parte duten catzaileak elkar aukera du ailuko ren bidez. Net- programaren iomentuan tuta dagoen kusten duzu, iiekin hitzegin Gainera,**

**kamara bidez, beste pertsona hori ikusteko aukera ematen du. Teknika honi esker, herritarrek udaletxearekin konektatu ahal izango dira, bertara joan gabe. Dagoeneko bideokonferentziaz arduratuko den enpresa aukeratu dute. Beraz, lehenbailehen martxan jartzea espero dute.**



### Zer da "Mendaro Interneten" proiektua?

Mendaro teknologia berrien mundura barneratzeko kalitate handia eta herriari prestigioa emango dion proiektua da. Teknologia berrien etengabeko garapena ikusirik, Udalak teknologia berri hauek guztiak herritarren esku egon daitezen martxan jarri duen proiektua da.

